

Pil @ billean

1999ko Martxo

13. zenbakia




Utzi alde batera
izatea basko
hori beharrezko
eta izan gaitzen
euskaldun hitzezko
euskara erabiliz
beti arin ta fresko
KORRIKARI emanaz
ekinez baiezko
hamaikak esan nahi du
gu garela asko.

Bi urteren buruan
hementxe KORRIKA
aurten da korrika
gustoz zabal dezagun
euskaraz birika
erdaltasun nagiak
bota ta jaikita
hizkuntza zahar hauxe
arnasaz elika
lasterka egin ondoren
jarraitu korrika.

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA



VOGART



MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

korrika



**HNOS. BENITO
ANAIAK**

MUEBLES-ALTZARIAK

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

HORTZ KLINIKA

JAVIER ALONSO CELAYETA

Mediku Estomatologoa kol.zb.434

IONE BEITIA ARRIOLA

Odontologoa kol.zb. 523

Atxuri Igoa esk. Tlfnoa:943-75-16-13

Osakidetzatik gogorarazten diogu gaixoaldiren batean gurpildun aulki, muleta etab. hartu dituenari lehenbailehen itzuli behar dituela Soraluzeako anbulategian bertan beste gai-xoek ere erabil ditzaten
Mila esker!

Osakidetzako oharra

GOL S.A. industriak

***Tornileria-estanzazioa
eta extrusioa hotzean***

Tfnoa. 943 - 75 21 00

FAX 943-751712

20590 SORALUZE

Edurra teilatuan zakua lepuan...

Ondiok mendi tontoretako edurra guztiz urtu barik dauan honetan, herrixan aldaketa askokin etorri jaku gainera negua (ixa ixa juan be bai).

Euskal Herri mailan telefoniaren liberalizaziñuak zoramena sortu baldin badau, ez da atzian gelditxu gure idatzizko prentsarekiko grina, bat dala, bestia dala... eta azkenian periodikua nun erosi esaten propangandia jasoko dogu laster buzoian. Baina, horrek kompetentzia gauzak dia, eta kompetentzia sanua dala be esaten da-benik badao...

Baina, ez dia horrek gauza bakarrak izen, Korrika beste behin pasau da ziztu bizian Plaentxiatik. Hori bai, plaentxiatarrok beste behin pabeloia ondo altu laga dou, eta harrera epel epela emon dotsagu Korrikari.

Bestalde, penia da asteburuetako zinia denboraldi baterako ahaztu biharko dogula polideportibuan, sapaia jausi ei da ta humedadia dala ta (grabedade madarika-tua!!!).

Zer esango dotsuet ba nik... hurrengo hilabeteotan sorpresa ugari aurreikusiz agurtzia besterik ez jata falta. Espero dot beste behin nere tripetan topauko dozuen informaziñua danon gustukua izango dala. Eta holan ez bada, honatx gure direkzi-ñua bronkia bota ahal izateko:

Pil Pilean Herri Aldizkaria
27 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

AURKIBIDEA

Editoriala.....	1
Gutunak.....	2-3
Gizartea.....	4-5
Kale inkesta.....	6
Kirola.....	7-8
Berri motzak....	9-10-11
Karnabalak.....	12-13
Musika kontuak.....	14
Sukaldaritza.....	15
Sutondo.epelean..	16-17
Lehiaketa.....	18-19
Hormatzulo.....	20



ARGITARATZAILE: Pil Pilean, 27 PK. Tel: 943 75 13 04 **ERREDAKZIO KONTSEILUA:** *Gizarte saila:* Eduardo Pombar, Maite Etxeberria. *Kale Inkesta:* Amaia Aguirre, Aitziber Gantxegi. *Kirola:* Iñaki A, Juan A, Mikel G eta Bittor T. *Musika Kontuak:* Pedro Deza. *Sutondoaren Epelean:* Gorka Prieto. *Homatzulotik Begira:* Maite Etxeberria.

Berri motzak: Egoitz Unamuno, Ubane Madera *Lehiaketa:* Gurutze. **ARGAZKI ARLOA:** Gurutze eta Amaia **HIZKUNTZA ARDURADUNA:** Pilpilean. **PUBLIZITATEA:** Elene Alberdi eta Iñaki Alberdi. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Ertedakzioa. **TIRADA:** 1800 ale.


INPRIMATEGIA: K3(Bergara) **COPYRIGHT:** Pil Pilean Kultur Elkarte.

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Laguntzailea :
SORALUZKO UDALA

Kalebarreneko termometroa



Agur termometroari

Nire aitak, Juan Zabaletak, jarri zuen kalebarrenen termometroa 50. hamarkadan. Azken hamar urteotan hiru eraso jasan ditu, metxeroarekin edo pospoluren batekin berotu izan dute lehertarazi arte. Orain arte hiru aldiz bidali izan dugu Bartzelonara konpontzera, baina konpontzen zuen entrepresa dagoeneko desagertu egin da eta konpondu nahi izanez gero ere ezin izango genuke, azkenengoz garbi utzi baitziguten berriro horrelakorik gertatuz gero ezingo zela gehiago konpondu.

Benetan penagarria da batzuen jokabideagatik kalebarrendik pasatu eta tenperatura ezin jakitea, penagarria den moduan kalebarrenek berea zuen antzinako objektu hau era honetan galtzea.

Maria Jesus Zabaleta

Kirol bazkunaren oharra

Idatzi honen bidez, Soraluzeko udaletxeari zein Diputazio, Eusko Jaurlaritza eta antzeko estamentu ofizialei gure ezadostasuna adierazi nahi diegu epe laburrean Karakate-Hirukurutzeta zeharbidean "Parke eoliko" a egiteko dagoen proiektua dela eta.

Honenbestez, Soraluzeko Kirol Bazkunak bat egiten du "Eguzki" talde ekologista eta Soraluzeko Mendi Taldearekin eta adieraztera eman dio udaletxe honi, ingurugiroko zinegotziaren bidez Karakate inguruetan jariko diren aerogeneradoreekiko bere ezadostasuna ager dezala aurrez aipatutako estamentu ofizialen aurrean.

Soraluzeko Udalak gure ezadostasuna errespetatuko duen esperantzarekin besarkada handi batez agurtzen gara ondoren agertzen diren S.K.B. -ko lehendakari eta Mendi Taldeko ordezkariak.

Jose Cruz Arazanbal, Inaki Ruiz, Jon Elizburu
eta Zigor Gallastegi

Jarrai 20 urte bidean


Jarraik 20 urte bete dituela eta ospakizun batetan murgildurik gaude.

Jarrai Gazte Mugimenduak 20 urte hauetan eginiko lana ez da txikia izan, nahiz eta herri honetan presentzia nabarmenik ez duen izan. Honegaitik aipatzekoak dira 20 urte hauek direla eta egingo ditugun ekintza eta ekitaldiak. Adibide moduan hor daukagu Gazte Abialdiaren apustu gogorra, zeinean oraingo eta orain arteko lan ildoak isladatuko diren. Abialdi honek Euskal Herri guztia zeharkatzeaz gain beste martxa masibo bat egingo da, Saratik Donostiara joango dena. Martxa hau eta urtean zehar egingo diren ekitaldi eta ekintzak ospakizunez gain euskal gazteriarengana zuzentzeko, egungo egoeraz ohartzeko eta daukagun etorkizun beltzari aurre egiteko prestatzeko badira.

Argi utzi behar dugu hala ere, "Bake Prozesu" honetan egin diren ilusioak ez zapuzteko eguneroko lan gogorrean hasi beharra daukagula, Gasteiz eta Madrilera begira egon gabe eta ilusio faltsuak sortu gabe.

Besterik gabe, jendearen partehartzearen espe-roan agurtzen da:

Soraluzeko Jarrai



Argitarapen honen edizioko laguntza le:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

ZILEGI OTE DA EUSKALKI IDATZIA?

Pasa dira jada hiru lau bat urte Euskal Herriko Herri Aldizkariak elkarren berri izateko topagunedo mahainguruak antolatzen hasi ziretik. Urtean behin egiten diren topagune hauetan aldizkari bakoitzak bere tokia eta ahotsa izaten du, honela beste aldizkariarentzat erabilgarri izan daitezkeen ideia, ekintza edo informazio berriak argitara ematen dituelarik. Honetaz gain Herri Aldizkariaren eguneroko jardunean pil-pilean dauden gai konkretuei buruzko eztabaidak ere izaten dira. Joan den Azaroan Arrasaten egin den mahainguruan aurkeztu diren gai guztien artean eztabaida handiena eragin duena, herri aldizkarietan erabili beharreko hizkuntz eredua zein izan behar duen zehaztearena izan da dudarik gabe. Euskara batuak edo estandarrak eta euskalkiak herri aldizkarietan bete behar duten tokia eta papera nolakoa izan behar duen erabakitzerakoan bi eritzi edo ikuspuntu bereizi ahal izan dira. Batzuen eritziz herri aldizkariak behar beharrezko dute tokian tokiko euskalkia erabiltzea eta hau, zalantzan jarri ezin daiteken euskara batuaren erabilpenarekin batera uztartu behar da, beste arrazoi askoren artean; irakurleak informazio mailan bezala hizkuntza alorrean ere hurbiltasun bat izan dezan, euskalkiak behar duen prestigioa lor dezan, gaur egungo homogenizaio joera honen barruan euskalkiari bere garrantzia aitortu dakion, herri aldizkariak, hizkuntz eredu honen goitik beherako bidea aldatuko lukeen etorkizuneko berreskurapen plangintza baten barruan, garrantzizko partaide izan dadin.... etab. Hau dena gaurko egunean euskalkiaren idatzizko erabilera oztopatzen duten hainbat faktore badirela onartuz, esaterako euskalki gehienak beraien korpusa zehaztu gabe eta idatzizkorako dagozkien arauak ezarri gabe izatea.

Beste batzuen eritziz herri aldizkariak eus-

kara batua erabili behar dute nagusiki eta euskalkiak presentzia sinboliko bat besterik ez du izan behar. Hauen ustetan euskera batua da idatzizko forman erabili behar den hizkuntz eredua eta ez euskalkia. Honek horrela izan behar duela adierazteko zenbait argudio aipatu zituzten; euskalkiak arautu gabe egonik ez dagoela erizpide argirik ezinbestekoa den gutxieneko zihurtasun eta mailan idazteko, gaur egunean ez dagoela euskalki bakoitzaren korpusa zehazteko baliabiderik eta are gutxiago bakoitzaren idatzizko arauak ezartzeko, euskara batuak, bere zentzurik zabalean ulertuta bere barne hartzen dituela euskalkiaren oinarritzko ezaugarri asko eta bide honetan aukera zabala dagoela, herri aldizkariak ez dutela euskalkien auzia beren gain hartu behar etab.... Gaineratuz idatzirako euskalkia ez erabiltzearen alde egoteak ez duela esan nahi euskalkiaren desagerketaren aldekoak direnik, euskalkia beste erabilera eremu batean erabili beharko litzatekeenaren ustekoak direla baizik.

Eztabaida guzti honetatik atera daitezkeen ondorio nagusienetako batzuk, nire uste apalean behintzat, honako hauek dira. Lehenengo eta behin, gai honen inguruan elkarrengandik aski urrunduak dauden bi ikuspegi edo jarrera daudela bigarren jarrera biek dituztela aurrera jarrartzeko besteko arrazoi eta argudioak eta hirugarrenik, behar beharrezkoa dela hitzeginez eta behar dena eztabaidatuz lehenbailen ahal denik eta jarrera bateratuena lortzea, bai aldizkari eta bai hizkuntzaren onerako.

Egoitz Unamuno

ARMENDIA JATETXEA

sukaldaritza tradizionala

Bataioak, jaunartzeak
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK

Ezozia Auzoa 11

Tfnoa: 75 10 02

SORALUZE

AKELARRE TABERNA

Bokatak, pizzak eta kazuelitak

Tlfnoa: 753102

SORALUZE

EGUNKARIAK ETA ALDIZKARIAK NONAHI

Abendutik hona Soraluzetarrok prentsa salmentan, konpetentziaren fenomeno haundienetariko bat bizi dugu. Orain dela gutxirarte bi leku genituen egunkariak erosteko, orain, berriz, 4: Arce-lus, Okindegia, Iratxo eta Santa Anako kioskoa.

Hau dela eta, Pil Pilean-ek fenomeno honen protagonistekin egon nahi izan du zuek jakin dezazuen nola erabaki duten egunkariak saltzea eta zer uste duten gai honi buruz.

ARCELUS:

Jendea ondo portatzen ari da

G: Hemen zer saltzen duzu, egunkariak eta aldizkariak?

Bai, egunkariak eta rebistak.

G: Zer ordutegi daukazu?

Egunero zabaltzen dut. Goizean 6etatik 14:30etara eta arratsaldean 4:30etatik 8:30etara.

G: Nola bururatu zaizu egunkariak eta saltzea?

Beno, badakizu hemen denetik saltzen dugula, eskolako materiala batez ere, baina hau poliki-poliki gutxira doa eta Emilitak laga behar zuela jakin izan genuenean animatu egin ginen.

G: Eta ondo doa?

Beno ordu eta sakrifizio haundiarekin baina jendea ondo portatzen ari da eta merezi du baina borroka askorekin; nik lau edo bost ordu egiten baitut lo egunero.

G: Oporrak ezin dituzu hartu, ez?

Ez iganderik, ez oporrik, hiru opor egun ditut bakarrik, gabonetan bi eta Aste Santuan bat. Urtean hiru.

G: Soraluzen asko irakurtzen da Bai, ni oso harrিতa geratu naiz, Jendeak aldizkariak erosten ditu baina ez kotileoarenak, batez ere



besteak. Jendea oso kultua da eta egunkarien artean Diario Vasco da gehien saltzen dena. Gero gutxien Euskaldunon Egunkaria eta Madriletik etortzen direnak: As, ABC edo La Razón. Beno nire dendan, behintzat, beste dendek beren salmentak edukiko dituzte.

IRATXO:

G: Azkenaldi honetan asko ari zarete egunkariak eta aldizka-

riak saltzen, zer dela eta ?

Plaentxirako larregi. Gure kasuan, orain dela urte bete hasi ginen aldizkariak saltzen.

Juan Luis Guenetxea (Txan) langabezian zegoenez, Juan Mari eta Emilitarekin hitz egina zegoen berak haien ordezkariarekin jarraitzeko, baina udaletxeak kioskoak kentzea nahi dituzenez eta gure dendan aldizkariarentzako lizentzia ordaintzen genuenez, lokal honetan saltzea erabaki genuen.

Juan Luis hasi zen lehenengo egunkariak saltzen eta gero ikusi daitekeen bezala beste toki batzutan ere hasi dira. Orain Plaentxin larregi dago, egunkarietakoak diotenez, honelako herri batean bi posturekin aski da, hiru nahiko gaizki eta lau ezinezkoa, minimo batzuk eskatzen baitituzte.

G: Hori, zer dela eta, negozio ona delako?

Negozio haundia ez, oso ordutegi lotua dauka eta, egunero 6etan hasten gara 1:30ak arte eta oporrik ere ez, urtean hiru egun bakarrik daukazu. Gu familia haundia garenez, txandaka egiteko moduan gaude.

Plaentxirako larregi da

Baina oso lotua da niretzat, pertsona batendako ezinezkoa.

G: Merezi du, orduan, lotura horrekin?

Hori denborarekin ikusiko da. Momentu honetan konpetentzia oso gogorra da, baina Juan Luisek jarraitu beharra dauka, gauzak txarrera egingo balute nik nire lanarekin jarraituko nuke, lehen bezala, baina Juan Luis bapegabe geratuko litzateke, gauzak normalduko dira. Lan hau gogoko du eta pazientziaz eta gu bion elkarlanaz aterako dela uste dut.

Argi eta garbi utzi nahi nuke, egunkariaren negozioa Juan Luisek berak daramala nahiz eta lokal berean egon.

MENDIZABAL OKINDEGIA

Jendeak eskatzen zигun

G: Noiz hasi zineten egunkariak saltzen?

Martxoaren 2an hasi ginen.

G: Zergatik hasi zineten?

Ba jendeak eskatzen zигun eta horregatik, esaten zигun ekartzeko eta ekartzeko komoditatea dela ogia eta egunkaria batera erostea eta horregatik.

G: Zein ordutan zabaltzen duzue hau?

Ba zortzietan zabaltzen dugu egu-

nero

G: Eta nola doa?

Oraindik goiz da hori esateko eta oraindik ez dakigu, baina badakizu gutxinaka gutxinaka.

SANTA ANAKO KIOSKOA.

Ez dugu alderik igarri

G: Plaentxian orain ematen du jende guztia hasi behar dela egunkariak saltzen eta zuek daramazue denbora gehien. Zenbat urte daramazue?

Hamahiru urte daramatzagu.

G: Eta orain, igartzen al duzue alderik?

Ba, ez asko oraindik behintzat.

G: Eta zer uste duzu izango dela danondako tokirik?

Jarraituko dute, baina ez dago danontzako negozioirik.

G: Zuek zer ordutan zabaltzen duzue?

Goizeko seietan zabaldu eta itxi ordubatean eta asteburuetan ordubietan, gero arratsaldetan jai baina oso lan lotua da, bi egun ditugu bakarrik

urtean jai eta.

G: Baina merezi du?

Bai norberandako ateratzeko bai.

G: Eta oraindik jarraitzeko asmoa duzue? Bai.

OTAHARRI

G: Hemen bakarrik aldizkariak

Ez nuen igandeetan lan egin nahi

saltzen dituzue. Arrazioren bat dago?

Bai ez dudalako nahi igandeetan lan egin, lan oso lotua da eta astegunetan saltzea ondo iruditzen zait baina asteguneko bezeroari ezin diot esan igandeetan beste leku batera joateko erostera.

Aldizkariena, desberdina da ze pentsatzen dut negozio hau egozia dela horretarako.

Ikusten duzuenek, leku ugari dago egunkariak eta aldizkariak erosteko, gure aldizkaria irakurtzeko, berriz, ez duzu inora joan beharrik zure buzoian aurkituko duzu beti eta.

**Eduardo Pombar
Maite Etxeberria.**



PASCUAL CHURRUCA, S.A.
TORNILLERIA ESTAMPADA

ERREKALDE 21

Telef. (943) 751600 eta 751604
Faxa (943) 752461

20590 SORALUZE
(Gipuzkoa)

SAN ANDRES
ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA

Rabal, 2

Tlf: 751646

SORALUZE

Egunkari salmenta gune gehiegi edo zerbitzu hobea?



Loli Nievas

34 urte

Aseguru Saltzailea

Niretzako gehiegi dira, batak besteari konpetentzia egingo diote eta ez du inork bertatik jango. Esaten den moduan, "Ni come, ni deja comer".



Amaia Bolunburu

24 urte

Tabernaria

Pasada bat da, konpetentzia eitzeko asmotan dendetan hasi dia egunkariak saltzen.

Larregi pentsatzen jata, herri txikia dalako.



Igor Garitano

25 urte

Tornailaria

Berdin jata zenbat daren, ez dot asko irakurtzen egunkaririk. Bost axola.



Sonia Ezena-

55 urte

Modista

Neri askoz hobeto pentsatzen jata kioskotan saltzea, ze bestela normalean sartzen ez zaren denda batera sartu bihar zara, eta konpromisua da.



N. Iñurrieta

39 urte

Udaltzaina

Ez dute gehiago salduko, irabazia txikitu egingo da. Denborarekin ikusi beharko da ba-tzuek lagatzen duten edo ez, lan honek esfortzu handia suposa-tzen baitu. Bezero moduan, zerbitzu hobea eskeintzen dute, aukera gehiago.



Jesus Orbea

60 urte

Jubilatua

Honek ez du bultzatuko jendea egunkari gehiago erostera. Salmenta puntu gehiago egotearren ez du jende gehiagok erosiko egunkaria.



ITXAROPENA
TABERNA
SORALUZE

Etzaburueta, 4 - Telefonoa 75 23 30

ATXOLIN TABERNA
Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 Tlfnoa: 75 21 31
Soraluze

SORALUZEN ARIZNABARRETARRAK TENIS MAILAN AITZINDARIAK

Euskal Herrian tenisean aritzeko aukera gutxi dago eta Soraluze ez da salbuespena. Guxik dakite Irure auzoan tenis pista bat dagoela eta are gutxiago bertan lenengo pausoak emandako famili txapelduna daukagula. Ariznabarretarrak (Jabier, M^a Jesus, Leire eta Eneko), hasieran tenisa afizio bezala hartu arren, gaur egun, jandantik, jokatu dituzte hainbat txapelketa eta lortu dituzten emaitzak benetan txalogarriak izan direla aipatu behar da. Jabier, M^a Jesus eta Enekok tenisa hobby bezala praktikatzen dute, eta Leirek berriz, orain dela urtebete federatu zen, epe labur honetan bere progresioa oso haundia izan delarik. Esan bezala, kirol honi buruz eta batez ere, beraiek jarraitutako ibilbideari buruz, ezer gutxi dakigu eta horregatik beraiengana joan gara aipatutako gauza guztien berri zuei emateko asmoz.

Noiztik afizio hau? Nola hasi zineten?

Afizioa betidanik izan dugu. Hasieran baserrian jokatzen genuen, inguruko herrietan pistak egiten hasi zirenen arte.



M^a Jesus eta Leire Oñatin irabazitako sariekin

Non entrenatzen duzue? Nolakoak dira pistak?

Familiakoak Irureko pistan entrenatzen dugu, eta Leirek berriz, Oñatin.

Pistak, batez ere, bizkorrak izaten dira.

Torneoak non jokatzen dituzue? Nolako emaitzak lortu dituzue?

Torneoak Gazteiz, Irun, Donostian eta beste hainbat lekutan ospatu izan ditugu.

Lortutako emaitzak nahiko onak izan dira; nire amak Oñatin jokatutako txapelketan bigarren atera zuen eta nik berriz txapeldun. Gero, Azkoi-

tian eta Irunen bigarren postua lortu nuen. Txapelketa hauetan lortutako puntuek Gipuzkoako masterrean parte hartzeko aukera eman zidaten; master honetan Gipuzkoako zortzi lehenek jokatzen

dute.

Zuen kasua bitxia al da?

Bai, oso gutxi daude. Normalean seme alabek jokatzen dute.

Emakume federatu asko al dago Euskal Herrian?

Nahiz eta hasiera batean gutxi egon (pisten faltengatik), gaur egun gero eta gehiago dagoela esan liteke.

Zeintzuk dira tenislari batek izan behar dituen ezaugarriak?

Abilezia, hanken mugimendua eta gauza guztietan bezala, praktika haundia.

Etxabe Harategia

Euskal txahalkia eta bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak - SORALUZE

Telefona: 752375



**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

7. Jokatzekotan zer nahiago, bakarka ala biñaka? Zergatik?



Leire Ariznabarreta

Ni gustorago, bakarkako lehiaketetan sentitzen naiz, biñaka-koetan erritmoa galtzen da eta jokatzeari ere zailagoa da.

8. Gutxi ezagutzen den kirola izanik, zer behar du tenisak indarra hartzeko gure inguruan?

Azpiegiturari eman beharko litzaioke garrantzia, pistak egin eta horretaz aparte, merke jarri jokatu nahi duten guztientzat.

9. Soraluzean zein izango litzateke toki egokia pista bat egiteko?

Polikiroldegiak goian duen futbito zelaia erabil zitekeen, bai futbitoan jokatzeko eta baita ere tenisean aritzeko; azken honetarako sarea jarri eta pista markatzearekin nahikoa izango litzateke.

10. Ezagutzen duzue Soraluzean tenisa praktikatzeko duen

beste norbait?

Hobby bezala praktikatzeko duten bakar batzuk ezagutzen ditugu, baina ez dugu uste federatu mailan inor dabilenik.

Elgoibarren Soraluzearentzat lehiaketa bat antolatzen ari direla entzun dugu.

11. Zer deritzozue tenisa aberatsen kirola dela esaten dutenean?

Pistak gertuan eduki ezker ez litzateke garesti irtengo; horretaz aparte kontutan izan behar dugu oso material gutxi behar izaten dela.

12. Etorkizunerako zeintzuk dira zuen asmoak?

Lehenengo ikasketak bukatzea eta kirol mailan, orain arte egindakoa hobetzea.


13. Izango dugu zuen jokoa ezagutzeko aukerarik Soraluzean?

Bertan pistak egongo balira,

ez gurea bakarrik, beste askorena ere ezagutzeko aukera izango genuke.

14. Anekdotarik?

Oñatiko San Migel txapelketan amak eta biok bertako finala jokatu genuen.



Leire Irureko tenis pistan

ALAITZ TABERNA

**EZOZI ETORBIDEA
TFNOA. 75 11 90
SORALUZE**


**ARRANO-TABERNA
SORALUZE**



MARTXA eta BORROKA

POLIKIROLDEGIKO ZINEMAKO SABAIA BEHERA

Polikiroldegiko zinemako sabaia erori zen, pasa den otsailaren azken astean. Zorionez ez zuen inolako ezbeharririk eragin, inor barruan ez zegoela gertatu zen eta. Badi-rudi sabaia bigarren aldiz erortzearen arrazoirik nagusiena, hezetasunaren arazoa izan daitekeela. Ondorioz, jakinarazi dute, konponketa lanak bukatu arte, ez dela igandetako zine emanaldirik egin ahal izango.



ELIZA BERRIZTEKO LANAK HASIKO DIRA

Elizari, batipat hezetasunaren eraginez sortu zaizkion okerrak konpontzeko lanak, aurten hasia espero da. Azken urteotan kanpandorretik erori diren harriek, garbi erakusten dute, eliza egoera honetan mantentzeak dakartzan arriskuak. Berrizte lan hauekin, eleizdorrea berritu, zine zaharra bota, hezetasuna kendu eta barrua eraberritu nahi da. Lanek guztira 300 milloi pezetatako kostua izango dute gutxi gora behera.



Erretegi
Zatetxen

EZOZIA

Bº Ezozia, s/n - Tel. 943-751001 - SORALUZE

ETXEBARRI®

Barra kargadore automatikoak
Tuerke roskatzailak
Ranuratzailak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefonoa (943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)

**JUAN MARI
ARRAINDEGIA**

ARRAIN FRESKO-FRESKUA!!!


Tfnoa: 752440

SORALUZE

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

LAUDIN, S. A. L.

Industriaidea, z/g
138 Postakutxa
Tf.: (943) 75 21 50
Faxa.: (943) 75 21 18
SORALUZE



SAGARDOTEGIRA BIDAIA

Otsailaren 27-an, Pil Pileanek antolatuta Abaltzizketako sagardotegi batera joan ziren berrogeirenbat lagun. Ohitura den bezala lehen bizi bakailu tortila eta ondoren "parrillian" erretako txuleta jan zituzten. Tartean, nola ez, sagardo kupelei sarri xamar egin zitzaizen bisita. Postrea jateko ia hastirik gabe Mendotz eta Argatebururen trikiti doinu eta kantuak giroa bero xamar jarri zuten. Itxuraz ez zen nahiko trikitiarekin eta bertsolarientzat ere egin zen tartea. Gainera ez ziren nolana hiko bertsolariak aritu, ustekabean afaltzera etorri ziren Mendiluze, Irazu, Agirre (Unai) eta bertan afaltzen suertatu zen Iraolarekin batera Etxebarri eta Argateburu plaentxiarrek ere bertsotan egin zuten eta saio polita biribildu zuten kopletan. Gainera, Etxebarrik albokari ere eragin zion. Sagardotegitik irten eta gero, "Ordiziatik buelta" herrira etorri ziren. Hortik aurrerakoak ez dira kontatzekoak!!!

Argi ikusi zuen jendeak plaentxiarrek sagardotegian ez dutela sagardoarekin bakarrik gozaten.

(Jakin dugu, egun horretan Pil Pileanek antolatutako irteeraz gain beste hiru autobus izan zirela koadrilek antolatuta. Seguruenik hauek ere oso ongi pasatuko zuten).

LAN ORDU BAT EUSKERAREN ALDE

Joan zen Abenduan euskararen alde artu zen konpromisua hitzetatik ekintzetara pasatu nahian, Euskal Herriko Euskararen kontseiluaren ekimenarekin bat eginda, Soralueko Kontseiluak euskararen alde lan ordu baten baliola ematearen eskakizuna zabaldu du herriko zenbait lantegitan. Honetaz gain, dei bat egiten die herriko langile guztiei ekimen honetan parte artu dezaten eskatuz.



LAKUESTA OPTIKA

OPTIKO-OPTOMETRISTAK

IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK

ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU
KARRETEAK SALGAI


SANTA ANA 22C
Tel. 943 753059

20590 SORALUZE
(GIPUZKOA)

ARANE
KIROLDEGIA
TEL.943 75 24 66



OKINDEGIA



MENDIZABAL

Kalebarren, 10 - Tfn. 943 75 20 91
Baltegueta, 6 - Tfn. 943 75 13 99
SORALUZE

IRATXO

GOXOTEGIA
Etxaburueta, 4
20590 SORALUZE
Telef. 943751320
943751464

EGUNKARIAK

GOIZEAN

GOIZ



SANTA AGEDA ESKEAN BASERRIZ BASERRI

Hamar lagun atera ziren Otsailaren 4-an baserriz baserri kantuan, Euskal Herrian hain maitea den Italiako martiria omendu nahian. Ateratzen diren bostgarren aldia da dagoeneko eta ohitura herrian errotuz doala dirudi. Aurten "asto gainean" Ezoz, San Andres eta Txurruka auzoko baserri gehienak (ez guztiak) pasatu dituzte, baina urtetik urtera baserri gehiago pasatzen ahalegintzeko asmoa azaldu dute. Beti bezala baserritarrek eskuzabal hartu zituzten. Umore ona, trikitixa eta koplak izan zituzten bide lagun egun guztian (goizalderarte).

GATZAGA-LANDA PROPOSAMENAREN AURKEZPENA

Otsailaren 3-an Gatzaga-Landa proposamenaren aurkezpena egin zen Soraluzeako Arranoan HB-k konbokatuta, eta hogeitersona inguruk hartu zuten parte. Proposamen hau, egungo errepideen hobekuntzan eginaz trafikoa arazoei irteera eman nahi dien alternatiba bezala aurkeztu zen.

Gai honen inguruan aipatzekoa da Martxoaren 2-an Eibar-Gasteiz autopistaren lehenengo bide zatiaren lurren espropiazioak egin ziren Udaletxean. Espropiazio hauen aurrean Eguzki eta Gaztetxeak kontrako jarrera erakutsi dute eta egun hortan bertan konzentrazio bat burutu zuten Udaletxearen aurrean.

<p>Aras S.A. Tornutegi dekoletatua Autzairu eta metalezko piezak Tornutegia S/ Din arauak Zehaztasun haundikotorlojuak Industrialdea 20-21 Tel: 943 75 17 36- 75 18 03 50 postakutxatila 20590 Soraluze (Gipuzkoa)</p>	<p>ARCELUS LIBURUDENDA Era guztietako artikuluak</p> <p>EGUNKARIAK ETA ALDIZKARIAK</p> <p>SORALUZE Telefonoa: 943751143 Faxe: 943751143</p>
<p>PINTURAK • MARMOLIZATUAK • GREKOAK ZORUEN ETA HORMEN ERREBESTIMIENTUAK</p> <p>HNOS. ARRUABARRENA ANAIAK</p> <p>Telefonoak: (943) 75 18 14 75 18 15 SORALUZE (Gipuzkoa)</p>	<p>JABIER ALBERDI</p> <p>HARATEGJA Errebal kalera 24 tlfno: 75-19-32 Soraluze</p> <p>EUSKAL OKELA</p> <p>CARNE DE VACINO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO PUSKO LABRI</p>
<p>Joyería IOSU, S. L. Santa Ana, 22 Teléf. 943 75 12 77 SORALUZE</p>	

J
a
i
G
i
r
o
a



*Eguraldia hotza,baina
umorea bero bero...*



Txapeldunak



m



z

o



rr



rr




o



a



k



ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO ETA
KONPONKETAK, ETXETAKOAK ZEIN
INDUSTRIALAK, ATEZAIN AUTOMATIKOAK,
BERO AKUMULAGAILUAK GAU
TARIFARAKO.

GANTXEGI

ELEKTRIZITATEA

Errekalde, 2 Apdo. 104

TEL.: 75 19 59

SORALUZE

“SORALUZE MUSIKA ONAREN TOPAGUNE”

Ez dago gaizki, hiru hilabete dira bakarrik urtea hasi zela eta ia astero izan dugu emanaldiren bat.



Urtarrilak 5ean, erregeek gaztetxean hartu zuten atsedena, opariak banatzen hasi baino lehen. Angel “Melchor” Celada, Gaspar eta Baltasarrekin batera bere oparirik ederrena ezkeini zuten han.

Oraingo honetan “Dina Flow”-ren konpainian.

Handik bost egunetara, Joseba Tapiak eta Koldo Izagirrek, “Apoaren edertasuna” erakutsi ziguten trikitixaren bidez.

Otsailaren 3an, aitaren pau-soak jarraituz, Celaden gazteena Gaztelupera hurbildu zen inprobisazioz beteriko kontzertua eskeiniz. Kontrabaxua David Mengualen eskuetan zen, Víctor Celadak ikaragarri jo zuen bateria eta hirukote-ari izena jarritz, New York-etik

etorritako Ion Urrutia Bitorra

EROSLE

KALEBARREN, 4
TLFNOA: 75 13 45
SORALUZE



“Erregeek” gaztetxeko emanaldian.

Urtarrilean, baina 24ean kasu honetan, sarritan gure artean egoten den, Malcolm Scarparen bisita izan genuen.



Celaden txikiena haundia bihurtzen da beteria aurrean.

“Betiko kantak”

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian Euskaraz nahi dugu hitz eta jolas, lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz.

Bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo irabaz. Zabal bideak eta aireak gure hizkuntzak har dezan arnas bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian Euskaraz hitz egiterik ez bada bota dezagun demokrazia zerri askara.

Geure arima hiltzen uzteko bezain odogalduak ez gara.

Hizkuntza gabe esadazue nola irtengo naizen plazara, geure arima hiltzen uzteko bezain odogalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna irabazteko eguna, pazientzia erre aurretik behar duguna: ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena? Zer Euskal Herri litzake bere hizkuntza ere galtzen duena. Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?



GRETELUPE
TABERNA

Telefonoa: 752081

OSKORRI

Pakita

Gaur egunean Soraluzeko taberna gehienetan jan ditzakegu nahi beste pintxo, baina badirudi Frantziska Unanue (Pakita) dela gure herrian pintxoak egiten hasi zen lehenengoetarikoa.

Azkoitiar hau oso trebea omen da sukaldean, batez ere pintxo bereziak egiteko orduan. Eta berari gehien gus-tatzen zaiona bere tabernan jende asko jaten ikustea dela esan digu "Nik nahi det hemen bertakoak etorri eta ona dagoela esatea".

Betiko pintxo arruntak alde batera utziz, Pakitaren pintxo berezietako bat nola egiten den ezagutzeko aukera dugu.



Frantziska Unanue Lete

Kalabazin betea

Osagaiak:

Kalabazina
Beratutako bakailaua
berakatz freskoa
pipermin zuria
olioa
kipula zuria
pipar gorri pikantea

Elaborazioa:

Kalabazin bakoitzeko 3 edo 4 zati egiten dira. Lehenengo, kalabazina zuritu eta hustu behar da, ondoren egosi egingo da piskat bigundu arte.

Bestalde, bakailaua, berakatz freskoa eta pipermin zuria olioaz su motelean frigituko dira. Nahasketa hau kalabazinak betetzeko erabiliko da. Azkenik, irinetan eta arraultzetan pasatu ondoren frijitu egingo dira.

Saltsa: Kipula zuria, olioa eta pipar gorri pikanteaz egiten da.

On egin !!

**BATZOKI
TABERNA**

Kalebarren 26

Tlf: 75-12-12

SORALUZE

GILA TABERNA

OSO GIRO ONA!!!

SORALUZE

“Ez litzaidake gustatuko Hilario Pinori bezala, niri ere muñekote bat ateratzerik”

Jokin Oregi Iñurrieta (*bigarren abizena ez ahazteko esan zigun eta*), 28 urte dituen artista puska soraluzetarra dugu. Gaztetxoek gaur egun telebistan ‘Ikusgela’ saioan ikusteaz soilik ezagutu arren, besteori ezaguna egiten zaigun aurpegi hoietakoa du. Orain Bilbon bizi den plaentxiatar gazte honek, zenbait abentura eta desbentura kontatu dizkigu oraingoa, hor doazkizue beraz!

Ezaguna da telebista munduan sartuta zabilzala, baina zer bide jarraitu duzue zauden tokira heldu arte?

Kazetaritza ikasi nuen, baina horrekin batera, karrera egiten ari nintzela antzerki munduan sartu nintzen. Gaur egun, Maskaradako partaidea naiz, eta horrez gain ‘Ikusgela’ saioan ere ari naiz lanean.

Horretaz aparte zeintzuk dira zure afizioak?

Ba, ia ia ez daukat afiziorik izateko astirik. Zinea gustatzen zait, lagun artean ibiltzea, eta futbola, nahiz eta orain aukerarik ez izan.

Zer zara Realzalea ala Athletikzalea?

Ni Realzalea naiz, nahiz eta Bilbon bizi naizenetik Athletika ere animatu. Hori bai, elkarren artean jokatzeko dutenean Realaren alde.

Inoiz tokatu al zaizu ‘Ikusgela’ saioan Soraluzeko umeekin erreportairen bat egitea?

Ez, ez zait tokatu. Gainera, ikastetxeen sailkapena etabar... talde pedagogiko batek egiten du. Dena dela, nik plaentxiako ikastetxetako ikasleak animatuko nituzke VHSan nahi dutenari buruzko bideoren bat egitera; txiste bat kontatzen, inkesta bat ikastolan, eskolaren aurkezpen bat,... guk heltzen zaigun guztia jartzen bait dugu. Postaz bidal dezakete ‘Ikusgela’ saioa ETB-Iurretara edo kontaktuan jar daitezke telefono mugikor honetara deituaz: 609-174187.

Berriro aukeratzerik baldin bazenu, lanbide berdinerara zuzenduko zenuke bizitza?

Noski, oraindik ni hasten nago eta bide luzea dut aurretik.

Kontulan Aholkularitza, S.L.
Asesoría Empresarial

Santa Ana, 13 - 1. Ezk.
Tel. (943) 75 17 82

20590 SORALUZE
(Gipuzkoa)

ION IÑARRA
HARATEGIA ETA URDAITEGIA

KALEBARREN, z/g Tfnoa. 751249
SORALUZE

Soraluze Futbol Taldean jokatu zenuen. Non da trebeago Jokin, futbol zelaian ala kamara aurrean?

Bueno, futboleko teknikoki ez nintzen txarregia baina ez neukan indar haundiegirik. Kamaren aurrean berriz ez naiz beste munduko ezer, baina ondo moldatzen naiz.

Gustatuko al litzazuke zure giñola

CANAL +n agertzea, Hilario Pinorekin batera?

Egia esateko ez naiz hain ezaguna eta ez diot nire buruari garrantzi gehiegizkorik ematen, baina egia esateko ez litzaidake gustatuko.

Orain ez zarenez Soraluzen bizi, zer botatzen dozu faltan bertatik, zerbait faltan bota badozu behintzat.

Egia esateko gustora nago Bilbon bizitzen, eta ez nintzateke, gaur egun, Plazentziara etorriko bizitzera, nire lanbidearekin zerikusia daukan dena Bilbo inguruan daukat eta. Agian hori esaten dot Plazentziara asteburero etor-tzeko aukeria dakatelako esaten dot, ez dakit...

Egunez egun, dituzun fan kopurua goruntz dijoanez, beraien izenean, ba al du Jokinek bikoterik?

Bai, ni ezkondata nago, orain dela bi urte ezkondu nintzen, ni bezala antzerki munduan mugitzen den andereño Lekeitiar batekin.

Eta seme-alabarik izateko intentziorik bai?

Ba, egia esateko ez. Ez da nahi ez dugulako, baizik eta lanpetuta astirik ez dugulako. Nire emaztea asko ibiltzen da kanpoan, antzezlanak egiten, adibidez orain 10 egun egon

da Galizia aldean... Beraz, oraingoz nahiko gaitza ikusten dot, ez badut beste batekin edukitzen!

Plaentxiako lagunekin kontaktoan jarraitzen al dozu?

Bai, noski. Nahiz eta batzuk gutxi etortzen naizela esaten didaten. Ahal dudanean etortzen naiz, adibidez, lehengo egunean babajana eduki genuen. Baina noiz edo noiz ere tokatu da kuadrilakoak Bilbora joatea, adibidez, aurreko batean Arriaga Antzokian *Nerudaren Postaria* antzeztu genuen eta han etorri ziran 16 lagun, neska eta mutil, ederto pasatu genuen eta farratxo bat ere bota genuen, oso gustora.

Zeintzuk dira irla desertu batera eramango zenituzkeen 3 gauza edo pertsona?


Ez dakit zer 3 gauza, baina hoietatik bat barkua dela seguru, aspertzen nintzanean irlatik alde egiteko.

Eta eramango ez zenituzkeenak?

Ba, ez dakit, inoiz ez dut jakin izan horrelako galderak erantzuten. Bueno, gasolina gabeko barkua.

Bukatzeko, kontaiguzu grabaketaren batean edo, gertatu zaizun pasadizo arraro, barregarri edo anekdotikoren bat?

Nik ez dut horrela, anekdotarik gordetzen, baina zerbait botatzearren, ba, Arriaga Antzokian behin mila pertsona ingururen aurrean, atera nintzan eta testua ahaztu zitzaidan, eta kristorenak egin nituen disimulatzeko. Baina, egia esateko inortxo ere ez zen konturatu hankasartzeaz.



LOSINTXA LEHIAKETA

*Ez dizut nirekin
ezkontzeko eskatzen,
maitasuna itsua izaki;
ezkontzak ikusmena
berreskurarazten baitu.*

*Entzun nuenean nik zure ahotsa
konturatu nintzen maitia
zu zinela nire bihotza.*

*Belontzia naiz,
haizea zara...
Zer egiten du itsasoan
belontzi batek
haizerik gabe?*

*Zertarako epo
utzi biagra
nahiago dut
zure begirada*

*Goizero ,eguzkia eta ni
presaka ateratzen gara
zu esnatzean ikusteko*

*Nire maitetxo-poxxolina
zure begiek bihotza dir dir eta
liluratu egiten naute*

*Horren goxoa izanik ,
eztitasun gutxi duk/n*

*Zu baino lehen ezereza
zu baino lehen hustasuna
orain zure eskutik infinitura.*

*Ikusi nuenean nik zure irria
iruditu zitzaidan maitia
eguzki oskarbia*



Iturgintza ITUR

Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa Ana 20

Tlf: 751241

SORALUZE

Lo nengoen, baina zure
maitasunak esnatu ninduen
hala ere, aintetik goxoena
bizitzen ari naizena da.

Jenioak hiru desio,
nik zu!

Elurrak mendi gailurrak bezala,
edertzen duzu zuk nire bizia.

Ni lorazaina izango banintz
zu nire loretegiko lorea izango zinateke

Txapelduna

Zure edertasuma ikusi nahian
egiten dute izarrek argi gauean.

Morena, zu zara herriko neska-
rik dotoreena!

Egoitz
Unamuno

Askatasunean bizi nahi nuen
eta bakarrik ametsetan maitatu
baina zure begietan nire burua
begiratu nuen eta...

ulertu nuen benetako askatasunaren
esanahia eta maitatu zintudan.

Zu zara nire maitasun lapikoan
egosten ari den urrezko barbantzia

Hurrengo lehiaketa...

Uztailetik aurrera Pil pilean aldizkaria hileroko zuen etxeetan jasotzeko aukera izango duzue, gustatuko litzaiguke zuen iritzia jasotzea, zer aldatu, zer gehitu, zer kendu... Hau horrela jasotzen ditugun iritzi gutunen artean zozketa bat egingo dugu eta txapeldunak euskal liburu edo diska bat irabazi ahal izango du.

Idatzi 27. postakutxatilara edo deitu
943 75 13 04 telefonora zure iritzia emateko.
garrantzitsua da

JAIOTAKOAK

- Ianide Makinai Milan (98-12-16)
- Alba Perez Rodriguez (98-12-16)
- Joseba Tena Garata (99-01-08)
- Maria Olabarria Duran (99-01-10)
- Nerea Atxotegi Goenaga (99-01-18)
- Lucia Legarda Hidalgo (99-01-31)
- Miriam Hidalgo Exposito (99-02-02)
- Oier Garmendia Oregi (99-02-04)
- Josune Saban Fernandez (99-02-24)
- Ane Aizpurua Orbea (99-02-27)
- Koldo Etxaniz Orbea (99-02-28)
- Ione Blanco Mendizabal (99-03-06)
- Carlos De Cos Maiztegi (99-03-11)
- Erick Asensio Luis (99-03-11)

HILDAKOAK

- Antonio Arizaga Oregi
- Victoriano Herrero Vega
- Marina Aparicio Gato
- Juana Gallastegi Madina
- Victor Nieto Matas
- Juan Cruz Iñarra Aizpurua
- Iñaki Oregi Juaristi
- Eustaquio Baskaran Juaristi
- Fernando Cid Delgado
- Marcelino Iraolagoitia Juaristi

**Aurreko aleko (12. zenbakia))
lehiaketaren irabazlea:**

**EGOITZ
UNAMUNO**
izan da



Hauek izan dira ale honetan beraien laguntza eskaini dutenak:

CARMELO MENDIZABAL
MARI MAR HARATEGIA
ERLEI
MARISA ILEAPAINDEGIA
IBAI-ONDO
JUSTO BODEGA
SANTA ANA KIROLAK
MARIAJE MERTZERIA
MERTXE DROGERIA
JOSETXO ARDANGELA
MERCE

IRATXO
OTAHARRI
ELKARTE AUTOAK
ARTADI ESKOLA
MIREN ILEAPAINDEGIA
TXURITXU
BEGOÑA TXURRUKA
ALTUNA HARATEGIA
CELIA
ARKUPE
MENDATA

**Enpresa
proiekturen
bat baldin baduzu...**

**... orain, gure
BABES osoa
duzu.**

**Gidalan
2000**

Informa zaituz Euskadiko Kutxaren
901 200 000 telefono zenbakian,
gure WEBan: gidalan2000.com,
edo zoaz informazio txartelean
aurkituko dituzun zentroetako
batera.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioan Foral de Gipuzkoa
Ekonomia eta Turismo Departamentua
Departamento de Economía y Turismo



“BOYMAR” ARRAINDEGIA


BEREZITASUNAK :

ARRAIN

FRESKO

ETA

ITSASKIAK



SANTA ANA 13 BEHEA SORALUZE

TLFNOA. 943 75.15.29

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A



Bularra eta azala mintzen duten ziriak




Haragia bularretakoan alboetan



Tirante eroriak edo azala estutzen dutenak



Bizkar desitxuratutak



Bularretakoan azpitik irteten diren bularrak



Bular eroriak



*Honen konponbidea
ORTO-LAGUNen daukazu*

*Hemendik aurrera
bularretakoak neurrira!*



Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

Denda berria



Gotzon Agirrezabal

Tel/Faxa: 943 76 72 52


ORDUTEGIA

astelehenetik zapatara:
10:00-13:00
eta 16:00-20:00.



AIT-ITV eta autobus
geltokitik 100 metrora

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak



Amillaga industrialdea, 5 • BERGARA • Renault-en ondoan